

Arabako Ogasunak bihar egingo du amatasun eta aitatasun itzultzeen bigarren ordainketa

la 3 milioi euro ordainduko dizkie 2014an prestazioa kobratu zuten 2.781 amari eta aitari. Abenduan beste 2,3 milioi ordaindu zituen

Aldundiak, guztira, 16 milioi itzuliko dizkie 24.000 arabarri Gainerako itzultzeak 2019ko maiatzaren amaiera baino lehen egingo ditu, pixkanaka

Gasteiz, 2019ko otsailaren 7a. Arabako Foru Aldundiko Ogasunak bihar egingo du amatasun eta aitatasun itzultzeen bigarren ordainketa. Zehazki, 2014ko amatasun eta aitatasun prestazioengatik ordaindutakoak itzuliko ditu. Horrela, 2.781 aita eta ama arabarrek 1.072 euro jasoko dituzte, batez beste, bihartik aurrera; guztira, 2,98 milioi euro izango dira. Interesdunek likidazio berriaren jakinarazpena jasoko dute posta ziurtatuz datozen egunetan.

Abenduan beste ordainketa bat egin zuen Aldundiak eta, guztira, 2,3 milioi euro itzuli zizkien 1.400 arabarri. Arabako Foru Aldundiak aurreikusten du 24.000 arabarri, guztira, 16 milioi euro itzultzea, Auzitegi Gorenak urrian emandako ebazpenaren irizpidea bere egin eta gero.

“Arabako Ogasunak lanean jarraitzen du itzultzeak ahalik eta modu eraginkorrean eta azkarren egiteko”, adierazi du Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak, José Luis Cimianok, eta iragarri du amatasun eta aitatasun atxikipen guztiak itzuliko dituztela, pixkanaka, eta prozesua maiatzaren amaierarako bukatzea espero dutela.

José Luis Cimianok gogorarazi du Arabako Foru Ogasunaren asmoa dela itzulketak ofizioz egitea. Horretarako, jakinarazpenetan eta banku kontuei buruzko datuetan hutsik egon ez dadin, interesdunek inprimaki bat bete behar dute datu eguneratuekin, eta postaz, bertaratuta edo posta elektronikoz aurkeztu (maternidadrenta@araba.eus eta paternidadrenta@araba.eus). Deskargatzeko esteka nabarmenduta ageri da www.araba.eus web orrian, edo, bestela, klik egin daiteke [hemen](#).



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prentsa Oharra Nota de Prensa

Horrez gain, Arabak aukera ematen du aitortena berriz egiteko, baterako zerga ordainketarengatik murrizketez baliatzeko, baina soilik modalitate hori zergadunentzat onuragarri bada.